

Tutorearen eta irakasle-taldearen ardura da hezkuntza prozesuaren ikuskaritza eta ebaluaketa, ikaskuntza prozesuaren eta irakaskuntza jardueraren ETENGABEKO EBALUAKETAN oinarrituta.. Horretarako, HASIERAKO EBALUAZIOA dugu abiapuntu; ondoren, EBALUAKETA HEZIGARRIAN, kontuan hartzen dugu egitekoen, partaidetza-mailaren eta Jarduera desberdinen jarraipen-mailaren gaineko azterketa.

Aipatutako hasierako ebaluazioarekin zera nahi dugu:

- Ikas-taldea ezagutu, ikaskuntza-irakaskuntza prozesua egokitzeko
- Irakasle bakoitzaren egoera ezagutu eta bere hobetzeko behar dituen baliabi guztiak martxan jarro
- Behar bereziak dituzten ikasleak detektatu, ikastetxeak neurri egokiak har ditzan
- Gela barruan aniztasunaren trataera oantolatu

Haur eta Lehen Hezkuntzan, termino KOALITATIBOEN bitartez baloratzen da prozesu hau: jaso egiten dira hurrek eginiko aurrerapenak, kasu bakoitzean hartu diren errefortzu eta moldaera-neurriak.

Ziklo bakoitzaren bukaeran, ikasle bakoitzak eginiko aurrerapenaren, zikloan eta etapan lorturiko helburuen eta arlo bakoitzean zehazturiko helburu eta irizpideen aurrean emaniko mailaren ESTIMAZIO GLOBALA egiten dugu. Bigarren Hezkuntzan, ordea, Lehen Zikloa eta Bigarren Zikloko ikasturte bakoitza bukatu ondoren egiten den BATUKETA baten ondorioa da EBALUAZIO hori. Era berean, bere irakaskuntza jarduerari buruzko hausnarketa egiten du ziklo bakoitzeko taldeak.